

JESUS MARIA ARRIETARI ELKARRIZKETA (DONOSTIAKO SEMINARIOKO ERREKTOREA)

Donostiako seminarioko Errektore jaunarekin gaude. Seminarioaren oraingo egoeraz, hartaz duen iritziaz, bokazio arloan dauden arazoez, itxaropen-argirik ikusten ote den jakin-minez eta galdezka hurbildu gatzaizkio.

Nola doa Seminarioko bizitza?

Aurten 13 apaizgai ari dira Seminarioan ikasten, horietatik hiru sartu berriak. Nik oso ondo ikusten ditut denak, egia esan. Izan dituzte, noski, egun ilunagoak, zalantzak edo nekea sumatzen dituzten egunak; baina Jaunaren eta hezitzailearen laguntzaz aurrera egiteko gogotsu ikusten ditut. Eguneroko bizitza horrela dago zatituta: goizeko 8etan, eukaristia ospatuz hasten diagu eguna. Eguerdiko 13ak arte klaseak hasten dituzte egunero. Bazkalondoan, arratsalde ia osoa nork bere antolakuntza egiten du: ikasi, kalera atera, pastoral konpromisoak,... Arratsaldeko 19.30tan ia egunero bezperak izaten ditugu eta ondoren ordu beteko bilera: liturgia prestatzeko, heziketa gairen bat lantzeko, egoera aztertzeko, hezitzailearekin hitz egiteko,... Arratseko 21.00tan afaldu ohi dugu eta ondoren elkarrizketa lasaia, telebista ikusi, nork bere gelan irakurri, noizean behin zinera,...

Zer da "pausoa" emateko gazteei gehien kostatzen zaiena?

Gazte askok bizi duen federik eza, erlijio arazoekiko axolagabekeria, pertsonaren oinarrizko galderak egiteko nagikeria... hauek direla, esango nuke, pausoa emateko zailtasunik larrienak. Beren bizitzarako Jainkoaren beharrik sumatzen ez badu-

te, Jesus eta beraren mezua beren onerako dela ikusten ez badute, nola eman pausoa?

Badirudi konpromisoa luzarorako hartzea ere gehiegi kostatzen zaiela; eta are gehiago halako konpromisoa denean: izate osoa, bizitza osoa hartzen duen konpromisoa. Gainera apaizaren bizitzak eta eginkizunak – baita erlijiosoarenak ere – beste era bateko baloreei erantzuten die... ikusten ez diren helburu eta balore. Eta hori, gaur egun, ez da erakargarria.

Elizan krisia dagoela entzuten obituak gaude, zure ustetan zer aldatu daiteke bizi dugun ilunaldia berriro ere argi izan dadin?

Elizarentzat krisia ezin da izan gauza ezohikoa. Giza erakunde guztiek bezala, Elizak ere badu egitura eta ohitura jakinetan eta “seguruetan” egon nahi eta aldatu nahi ez izateko arriskua. Egitura eta ohitura horiek zalantzan jartzen direnean, “krisia” duela esan ohi dugu. Baina krisialdiak beti laguntzen dio “ebanjelioaren arabera” eta “espirituak eragina” dabilen ala ez galdetzeko eginahalak egiten, eta hori ona da, etengabe egin beharreko galdera baitu. Krisialdiak ez du esan nahi Eliza desagertuko denik edota baliozkoa ez denik, baizik eta bere egiturak eta jardunak beti ebanjeliora egokitzen saiatu behar duela, aldi baterako diren gauzei lotua gelditu gabe.

Elizan zer aldatu? Zaila da halako galderari hitz gutxitan erantzutea.

Aipatzekotan, aldaketa bat aipatuko nuke: elizkide gehien “jarrera pasiboa” aldatu beharra dago, jarrera aktiboagoa eta partizipatiboagoa egiteko; eta horretarako, eliz arduradun garenok, eginkizunak eta erantzukizunak “banatzen” ikasi behar dugu.

Mogan dagoen beste gai bat, elizan laikoaren lekua zein den, zer pentsatzen duzu gai hontaz?

Bataiatu oro “Jaunak deitua eta Beragana, bere inguruan bildua” da. Beraz, elkarteak eraikitze-lanean denok dugu geure eginkizuna. Laikoak, Eliza barruan, bere eginkizuna du eta era askotako zerbitzuak egitea dagokio: antolamendu arloan, fede heziketa arloan, karitate zerbitzuaren arloan, fedearen ospaketan,...

Laikoak, ordea, eginkizun berezi eta oso berea gizar-tean du, nolabait esateko, elkarteaz kanpora begira: eguneroko zereginetan, gizar-tearen erdian, bere bizitza ebanjelioaren arabera eramanez eta gizar-teko erakundeak –txikiak eta haundiak– Jainkoaren asmoaren arabera eramateko eginahalak eginez. Hitz batean, Ebanjelioaren testigu izanez. Bataiatu guztiok izan behar dugu testigu gizar-tearen erdian; baina laikoek “bere eginkizun berezia” dute hori.

Albiste izan da, Katalunia aldean elizbarrutiak nola elkar-tzen ari diren, ikusiko al ditugu gure elizbarrutiak elkartuta?

Aspaldiko ametsa da askorentzat gure artean (ez guztien-tzat). Iruñeako elizbarrutian, adibidez, askok ez luke gogo onez ikusiko “eliz probintzia bakarra” egitea. Politikoen pre-sioa ere handia da, erabaki politikotzat hartuko bailuke askok hori egitea. Arrazoi hauek eta, seguru aski, guk ez dakizkigun beste batzuek atzeratu egiten dute Erromaren erabakia. Uste dut, hiru ez, lau elizbarrutiak elkartuko direla, baina oraingoz ez. “Berde” xamar dago arazoa oraindik.

Eskerrikasko Jesus Mari, gure galderei erantzuteagatik. Ea berriro ere gure seminarioetan iluzioz eta bizitzaz beteriko gazte gehiago ikusten ditugun. Kristau guztion zeregina da Jesusen Berri Ona leku guztietara eramaten, jarrai dezagun!

Jon Korta